

## AURTENGO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU IRABAZLEAK

**Kazetaritza Sariaren irabazle: ARANTXA ARZA ETA FELIX ZUBIA, “Osasun etxea” irratsaioagatik**

**Komunikazio Sariaren irabazle: “EGUNEAN BEHIN” jokoak, CodeSyntaxek egina**

**Epaimahaiak Adierazpen ezohikoa eman du ezagutzera, “Xabier Lete gogoan” lelopean Andoainen egin den sari banaketa ekitaldi hunkigarrian**

Azaroaren 26an, ostegun ilunabarrean, ospatu da Andoainen 2020ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ekitaldi nagusia. Bertan eman dira ezagutzera aurtengo saridunak: kazetaritza sariaren irabazle Arantxa Arza eta Felix Zubia izan dira, Euskadi Irratian igande goizero egiten duten “Osasun Etxea” irratsaioagatik, eta komunikazio sariaren irabazle CodeSyntax enpresa izan da “Egunean behin” joko arrakastatsuegatik.

Ondorengoak izan dira bi saridunak izendatzeko epaimahaiak nabarmendu eta ezagutzera eman dituen arrazoiak, hitzez hitz:

**Arantxa Arza eta Felix Zubia, Osasun Etxea irratsaioagatik:**

“Arantxa Arza kazetariak eta Felix Zubia medikuak osasun-konsulta zabaltzen dute igande goizero Euskadi Irratian. Saiok entzuleei kalitatezko zerbitzu publiko eredugarria eskaintzen diela azpimarratu nahi du epaimahaiak, bereziki COVID19ak mundu zabalean eragindako datu eta iritzi-anabasaren testuinguruan. Zer den alea eta zer lastoa bereizten lagundu duen erreferente informatiboa bilakatu da *Osasun Etxea* irratsaioa. Beraien zeregina gainera ez da koronabirusaren nondik norakoak azaltzera eta argitzera mugatu; izan ere, entzuleek beste edozein gaixotasunaz helarazitako kezka eta zalantzei erantzun diete, beti zehaztasunez, erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliz eta gizatasunezko tratu pertsonalizatua lehenetsiz”.

**CodeSyntax, “Egunean behin” jokoagatik:**

“Euskaratik eta euskaraz sortutako 80.000tik gora galdera ditu egun datu-basean tribial estiloko joko honek. Haren helburua da euskara sustatzea eta euskal kultura ezagutaraztea. Aplikazioak 100.000 deskargen langa gainditzea lortu du eta horietatik gehienek jokatu izan dute egunero. 2019an 3,5 milioi partida jokatu ziren. Komunikazio-esparrua aldatzera datorren tresna nagusiari (Internet eramangarria duen eskuko ordenagailu-telefonoari) modu irudimentsu eta arrakastatsuan heltzen dion proposamena da. Mugikorrarentzat egina izatean, edozein lekutatik parte har daiteke, gehienez egunean behin eta denbora mugatuan. Joko-jolasaren bitartez euskarazko erabiltzaileen komunitatea eraikitzeko tresna dugu CodeSyntaxek merkaturatu duen APP hau. Azpimarratu behar da taldean jokatzeko aukera ematen duela eta 40.000 talde inguru daudela sartuta jokoan. Hala, dagoeneko komunitate bat bildu da jokoaren inguruan, #eguneanbehin traolarekin sare sozialetan isla duena. Etengabe berritzen doan egitasmo honek, gainera, mugikorrerako aplikazio batek eskain dezakeen aukerak gainditu ditu, erabiltzaileei Youtubez erretransmititutako zuzeneko partidak jokatu eta jarraitzeko aukera emanez”.

Bi sari, kazetaritza saria eta komunikazio saria, biak maila berekoak: 9.000 euro eta Xabier Lakak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra eman dira sari banatan.

Epaimahaiak azaro hasieran zortzi finalista izendatu zituen aurtengo sarirako. Kazetaritza Sariko finalista izan dira, irabazlearekin batera, Miel Anjel Elustondo (Berrian argitaratutako “Tonban ehortzirik” testu sortagatik), Euskadi Irratiko Albiste Faktoriako 2019-2020ko lantaldea (2019ko irailetik 2020ko iraila arteko tartean egindako irratsaioengatik) eta Berriako “Koronabirusaren azken datuak” atala egin duen lantaldea. Komunikazio Sariko finalista izan dira, irabazlearekin batera, “Ene kantak” proiektu komunikatiboa, Arteman (“Lur eta Amets” filmaren komunikazio prozesuagatik) eta Urmuga proiektuaren spotagatik Mendiak eta Herriak elkarteak, Et Incarnatus Orkestra eta Sorland Komunikazioa.

XXXII. edizioa izan da aurtengoa. COVID-19a dela-eta ezinbestez aforo mugatuarekin egin da, baina, halere, 125 pertsona elkartu dira oso berezia eta hunkigarria izan den ekitaldian. Izan ere, “Xabier Lete gogoan” leloari jarraikiz egin baita ekitaldia, Leteren heriotzaren 10. urteurrenaren atarian. Xabier Lete gogora ekarri nahi izan da Joxan Goikoetxea, Klara Mendizabal, Petti eta Antton Valverde musikari eta kantarien eskutik Xabier Leteren kanta gogoangarriak abestuz. Gainera, orain arte sekula entzun gabe zegoen Rikardo Arregiren audio bat eskuratu dute antolatzaileek, zehazki Rikardo Arregik 1968an Bergaran eman zuen hitzaldi baten grabazioa. Grabazio haren zati labur bat entzun da lehen aldiz, non Rikardo Arregik Xabier Leteren goraiamena egin baitzuen.

Ekitaldiaren aurkezpena Aizpea Goenagak egin du, eta hitza hartu dute Andoaingo alkate Maider Láinez Lazcoz andreak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiria jaunak. Irabazleek ere hitza hartu dute eskerrak emateko. Bertan izan dira, aurtengo RAKSeko zortzi finalistak, hainbat erakundetako ordezkariak (besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundia, Urnietako Udala), Kazetaritza Elkargoaren buruzagiak eta euskalgintzako eragile ugari.

### **Epaimahaiaren Adierazpen ezohikoa: “Gizakiaren eta egiaren laudorioa”**

Pandemiak eragindako egoera zail eta gogor honetan kazetaritzak eta informazioak betetzen duten eginkizunari buruz Adierazpen formal eta ezohikoa egin du epaimahaiak. “Gizakiaren eta egiaren laudorioa” da Adierazpenaren izenburua. RAKS 2020ak badu, beraz, bere deklarazioa. Josi Basterretxea eta Maite Goñi epaimahai kideak izan dira Epaimahaiaren izenean Adierazpena jendaurrean irakurri dutenak.

XXXII. edizioko epaimahaia ondorengoek osatu dute: Jose Inazio Basterretxea, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Maite Goñi, Elixabete Larrinaga, Ion Muñoa eta Jon Sarasua izan dira mahaikide, eta Andoaingo Udaleko Mikel Arregi zinegotzia mahaiburua eta Patxi Baztarrika Euskara teknikaria idazkari.

Andoain, 2020ko azaroak 26

**Andoaingo Udala, Euskara Zerbitzua**